



Urretxuko udala

## SANTA LUTZI FERIA 2018 ARAUDI OROKORRA

### 1.-Eguna:

2018ko abenduaren 13

### 2.-Lekua:

Hainbat gune prestatuko dituzte antolatzaileek, eta produktuen arabera sailkatuko dituzte postuak. Antolatzaileak beraiek arduratuko dira salmenta postuak jartzeaz, Gernikako arbola plazan eta Iparragirre kalean. Abenida eta Areizaga-Kalebarreneko postuak erakuslee beraiek ekarri beharko dituzte eta ezinbestekoa da postu estaliak izatea. Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari haren kokapena.

### 3.-Ordutegia:

postuak eta salmentarako produktuak goizeko 9:00etarako jarrita egon beharko dute Eskuratutako postuaren berri ematean jakinaraziko zaio saltzaileari zein ordutan sartu daiteken bere kokapenera. Ezingo dira postuak 15:00ak baino lehenago jaso.

### 4.-Izen-ematea: **2018ko urriaren 10etik 31 arte**

### 5.-Izena emateko behar diren agiriak:

#### -Instantzia ofizial batetan:

- Eskatzailearen datu pertsonalak: izen-abizenak, NA, helbidea, emaila eta telefonoa.
- Salgai ipinitako produktuaren izena eta tipologia.
- Produktuaren kalitatearen eta jatorriaren bereizgarria (izanez gero).
- Produktuaren osasun-erregistroaren zenbakia (gizakiak kontsumitzeko elikagaiak direnean).
- Nekazaritza ustiapenerako txartela, fruta, apaindura-landare eta barazkien salmentaren kasuan (fruta edo barazki sariketako partehertzaileek, kontu korrontearen zenbakia adierazi)
- Janari-manipulatzailaren karneta (ontziratutako gabeko elikagaien kasuan).
- Jarduera ekonomikoaren zergan alta hartuta egotea.
- Gizarte Segurantzaren araubidean alta hartuta egotea eta kuota ordainduta edukitzea.
- Elikagai ekoizleen kasuan salmentarako beharko dituzten metro kopurua
- Artisauen eta beste produktuen kasuan postu estali propioa duten edo ez eta haren neurriak, mostradore neurria zehaztuz.
- Eskatzailearen ordezkari autorizatuta egon daitezkeen pertsonen identifikaziorako dokumentazio baliagarria.
- Ibilgailuan salmenta bada: ibilgailuaren zirkulazio baimena, erabiltzailearen gida baimena eta I.A.T.a gaindituta duenaren agiria.

**-Dokumentu horien fotokopiak aurkeztu beharko dira. Irakurri ezin diren dokumentuak aurkezten dituzten eskaerak ez dira tramitatuko.**

Iparragirre, 20 • 20700 Urretxu

Tel: 943 038 080 • faxa: 943 038 081 • [www.urretxu.eus](http://www.urretxu.eus) • [info@urretxu.eus](mailto:info@urretxu.eus)

I.F.K.: P-2008300-B

## **6.-Aukeratzeko irizpideak:**

- Ekoizle-saltzaileen jatorria: herriko, eskualdeko, lurralde historikoko eta abarretako ekoizleei emango zaie lehentasuna, hurrenkera horretan bertan.
- Produktuen tipologia: bertako produktu desberdinak erakusteari emango zaio lehentasuna.
- Produktuen egiteko modua: artisau-produktuak lehenetsiko dira produktu komertzialen aldean.
- Ferian parte hartzaile gisa duten antzintasuna: aurreko aldietan feriararen bertaratu direnek izango dute lehentasuna.

Antolatzaileek irizpide horiek kontuan hartuta egingo dute eskabideen arteko aukeraketa, eta ferian parte hartuko dutenei alde aurretik jakinaraziko diete.

## **7.-Baimena eskuratzeko baldintzak:**

- Dagokion prezio publikoa ordaintzea eskuratutako postuaren komunikazioan adieraziko den epean.
  - **Udalak berak, azpiegitura jartzen dituen postuetan 19,59€ metro lineal edo zatiko egunean**
  - **Beste postuak 6,53€ metro karratuko edo zatiko, egunean**
  - **postuak ibilgailuan 77,80€, egunean**
- Feria egunean, saltzaileak dagokien postuan kokatzeko ardura dutenei baimena erakustea.
- Feriararen eramateko baimendutako produktu hori bakarrik saldu ahal izango du eskatzaileak.

## **8.-Tasa/prezio publikoa ordaitzearen salbuespenak:**

Aldez aurretik salbuespena eskatzen bada, eskualdeko artisau eta ekoizleen salmenta postuak salbuetsita egongo dira. Udal interesekoa diren talde kultural, kirol edo sozialek salbuetsita egongo dira eta Ikastetxeek, beraien jardueraren finantziatorako jartzen dutenean, salbuetsita egongo dira.